



ELKARTE ETA
KOLEKTIBOETAN
ERASO MATXISTEN
KUDEAKETARAKO

protokoloak egiteko

GIDA

AURKIBIDEA

1- Gidaren helburua eta mugak	3
2- Indarkeria matxistaren inguruko irakurketa	5
3- Kasuen kudeaketarako oinarriak	7
4- Prozesuaren urratsak	11
5- Protokoloa kolektiboki definitzeko ariketak	17
5.1. Formazioa	17
5.2. Erasoen sailkapena	18
5.3. Aplikazio eremua	18
5.4. Neurriak eta proposamenak	20
5.5. Nork kudeatuko ditu kasuak	21
6- Bibliografia	22
7- Eranskinak	23



1.

GIDAREN HELBURUA ETA MUGAK

Azkeneko hamarkadan indar handia hartu du jaien testuinguruan gertatzen diren eraso matxisten gaiak. Mugimendu feministak egindako urteetako lanari esker, eraso horien gaitzespen sozial zein publiko masiboa izatea lortu da. Halaber, gaur da eguna non Euskal Herriko herri eta auzo gehienetako jaietan -edo jaialdietan- eraso sexista edo matxisten kontrako protokoloak eta ekimenak existitzen diren.

Horrekin batera, herri mugimenduen barruan edota kolektibo zein elkarteetako kideen artean eraso gehiago azaleratu direla hauteman dugu, bereziki azken urteetan. Mugimendu sozialetan ematen diren eraso matxisten afera ez da berria, betidanik egon dira horrelako kasuak. Alta, geroz eta gehiago dira horrelako egoerak azaleratzera animatzen diren emakumeak.

Jendartean orokorrean, bereziki emakumeen artean, feminismoarekiko eta indarkeria matxistekiko kontzientzia handitu da. Horrek, alde batetik, emakumeok egunerokotasunean jasaten ditugun eraso egoerak identifikatzeko gaitasun handiagoa edukitzea eragin du, militantziaren alorrean edo lanean gauden elkarteetan ematen direnean barne. Pairatutako eraso baten berri ematea erabakitzen dugunean inguruaren babesa izango dugula sentitzeak (kasu honetan gure kolektibo edo elkartearena), beste aldetik, indarra eta konfiantza ematen digu. Izan ere, errazagoa da ezagutzen ez dugun norbaiten jarrerak salatu eta festatik botatzea, gure taldekoa den kide bat gurekin jarrera desegokiak izaten ari dela onartu eta salatzea baino.

Hor hasten dira korapiloak. Gure kolektibo eta elkarteak horrelako kasuak kudeatzeko prestatuta daude? Baliabideak jartzen ditugu horrelako kasuak bideratzeko? Nola egiten da minaren erreparazioa? Zein neurri hartzen

“

Gure kolektibo eta elkarteak horrelako kasuak kudeatzeko prestatuta daude?

Baliabideak jartzen ditugu horrelako kasuak bideratzeko?

Nola egiten da minaren erreparazioa?

(...)

ditugu erasoak burutu dituzten kideekiko? Egungo justizia punitibo patriarkalean sinetsi ez arren, zigorra nahi dugu beraientzat? Zein justizia eredu nahi dugu eta hori praktikan nola egikaritzen da? Nolako prestakunta feminista eta kultura emozionala dugu komunitate bezala horrelako kasuetan inplikatzeko eta horiek kudeatzeko?

Ikusita gai honetan dauden hutsuneak eta azken urteetako esperientzia oinarri, Emaginetik tresna praktiko eta erabilgarri bat sortu nahi izan dugu. Indarkeria matxistarekin amaitzeko eta gure mugimendu zein kolektiboetan ematen diren egoerak kudeatzeko ardurak, kolektiboa izan behar duela uste dugu. Dagoeneko ezin dugu inguruko feministengan delegatu horrelako kasuak kudeatzearen erantzunkizuna. Egungo justizia ereduak ere zalantzak sortzen dizkigu, besteak beste, askotan erasoak jasan duenaren berbiktimizazioa ekartzen duelako. Gainera,

kontutan hartu behar dugu erasoak aipatzeko ez garelako soilik bortxaketa bezalako kasu larriez mintzo. Aitzitik, ikusgarrienak diren erasoak azpian gertatzen diren bestelako eraso eta jarrera matxista oro azaleratu nahi dugu. Egunerokotasunean gertatzen diren jokaerak ere mahaigaineratu eta kudeatu behar dira elkarte feminista izan eta kasu larriak ekidin nahi baditugu.

Horregatik, **kolektibo edo elkarte bakoitzak bere lanketa eta protokoloa egiteko GIDA BAT sortu dugu**. Ez, ordea, zalantza eta beldurrik gabe. Izan ere, kontziente gara elkarte edo kolektiboetan ematen diren erasoak konplexuak direla, askotan harreman pertsonalak zeharkatzen dituztela, aurreikusi ezin diren elementuak gurutzatzen direla, kudeatu beharreko emozio eta behar ezberdinak (askotan kontajarriak) loratzen direla, etab. Errespetu, zaintza, ardura eta humiltasun askorekin egin beharreko prozesu konplexuak izaten dira. Kasu bakoitza mundu bat da eta ez dago elementu eta aldagai guztiak aurreikusi eta kontrolatu ditzakeen protokolorik. Ondorioz, nabarmenak dira gida honen mugak. Alta, muga eta kontraesanak izan arren, gure asmoa gai honekin komunitate bezala egiten ari garen ikasketa prozesuan tresna praktikoa bat eskaintzea da. Horrekin lotuta, argi utzi nahi dugu ondokoa:

“

Emaginetik tresna praktikoa eta erabilgarria bat sortu nahi izan dugu. Indarkeria matxistarekin amaitzeko eta gure mugimendu zein kolektiboetan ematen diren egoerak kudeatzeko ardurak, kolektiboa izan behar duela uste dugu.

Amaitzeko, gida hau egitura bat duten kolektibo, elkarte edo antolakundeentzako prestatuta dagoela aipatu behar da, nahiz eta jakitun izan aldizkako ekimen edo herri mugimenduko espazio ezberdinetan ere horrelako erasoak gertatu. Horrelako kasuetan zailagoa da protokolo bat edukitzea edo kasuen kudeaketaren ardura nork hartu behar duen zehaztea eta denboran zehar sostengatzea.

- Protokoloaren osatze prozesuan KOLEKTIBO OSOA inplikatu behar da. Protokoloa besteko garrantzitsua da berau osatzeko egiten den bidea; **FORMATZEKO** eta **sentsibilizatzeko** balio behar du.
- Protokoloa izan arren, kolektibo edo elkarte bakoitzak feminismoarekiko duen kontzientzia maila eta horrelako prozesu bat garatzeko dituen gaitasunak neurtu behar dira. Beharrezkoa den kasuetan, prozesua dinamizatzeko edo kasuen bat kudeatzeko **KANPO LAGUNTZA PROFESIONALA** eskatu daiteke. Euskal Herriko kultura politikoa bada zer findu emozioen lanketari eta talde gatazkei dagokienean. Horregatik, beste arlo batzuetan baliabide ekonomikoak jartzen ditugun gisa berean inbertitu behar da alor horietan ere.

2.

INDARKERIA MATXISTAREN INGURUKO IRAKURKETA


Indarkeria matxista, genero-sisteman erro-
turik dauden pertsonen arteko desberdinkeria
soziala eta gizon-emakume botere-harrema-
nak birsortzeko nahiz emakumeak azpiratzeko
jendarte antolaketa patriarkarrak duen tresna
nagusia da. Horrez gain, indarkeria matxista
kontzeptuak espazio fisiko eta sinboliko guz-
tietan, tradizionalki ezarritako genero binomio
edo eskemetatik at kokatzen diren gorputz eta
identitateengan ematen den indarkeria oro
jasotzen du, hala nola, homofobia, lesbofobia
eta transfobia.

Halaber, heteropatriarkatua, kapitalismoa
eta kolonialismoa gurutzatzen diren siste-
man kokatu behar dugu indarkeria matxista.
Zapalkuntza sistema horien arteko loturak
askotariko biolentziak eragiten dituzte (siste-
marteko indarkeria edo indarkeria transiste-
miko). Zapalkuntza sistemak gure gorputzak
zeharkatzen dituzte hainbat une eta eratan:
klasea, arraza, jatorria, adina, nazioa, hizkuntza,
orientazio sexuala, genero identitatea, itxura
fisikoa, funtzionaltasuna, eta beste aldagaien
arabera forma bat edo beste hartuz ¹.

Indarkeriak ez dira modu isolatuan eta bakar-
tuan ematen. Zapalkuntza ardatzak iraunarazte-
ra norabideturiko indarkeriek dimentsio anitzak
dituzte (Galtung, 1990): **indarkeria zuzena**

gertakari zehatza da, jarrera edo ekintza bidez
eragindakoa eta ikusgarria; **egiturazko indar-
keriak** botere eta baliabideen banaketa deso-
rekatuarekin, esplotazioarekin eta biziraupene-
rako oinarritzko beharren asebetetze ezarekin
lotzen da; eta **indarkeria kulturalak**, indarkeria
zuzena eta egiturazkoa legitimatzen duten gizar-
teko esfera sinbolikoa barne-hartzen du.

Esku artean dugun gida honek indarkeria ma-
txistaren ondorio den indarkeria zuzenaren au-
rrean jarduteko protokoloak osatzeko helburua
du. Eragileetan izan daitezkeen bestelako
indarkeriek (sinbolikoak eta egiturazkoak), bes-
te tresna eta lanketa batzuk eskatzen dituzte,
besteak beste, Berdintasun Planen bidez landu
daitezkeenak.



(1) Euskal Herriko mugimendu feministak erailketa sexisten
aurrean erantzun bateratu bat emateko 2013an adostu zuen
protokoloa oinarri hartu, eta 2017ko "Indarkeria matxista bir-
pentsatzen" jardunaldietan emandako gogoetakin eguneratua.

Herri mugimenduetako kolektiboak nahiz Eus-
kal Herriko elkarte eta antolakundeak ez dira
irla isolatuak. Neurri handiagoan ala txikiagoan,
aipatutako indarkeriak eta botere harremanak
erreproduzitzen dituzte barne mailan, baita
parekidetasuna aldarrikatzen duten eragileetan
ere. Hori onartzea lehenengo pausoa da egon
daitezkeen desberdinkerien aurrean ardurak
hartu eta beharrezko lanketak egiteko.

Ondorengo taulan ikusi dezakegu herri mugi-
menduetan matxismoa nola birsortzen den.
Eman daitezkeen kasuistika guztiak bildu ez
arren, testuingurua modu egokian deskribatzen
duela iruditzen zaigu. Zaragoza/Madrilgo No-
ciones Comunes elkarteko webgunetik hartu
zuten Joxemi Zumalabeko kideek eta euskara-
ratu egin zuten:

INDARKERIA MATXISTA HERRI MUGIMENDUETAN

ZAINTZA LANAK

- Talde bizitzaren sostengurako beharrezkoak diren lanak eta laguntza emozionalaren feminizazioa.
- Aktibismorako ekintzen planifikazioa, zaintza lanetan ari diren pertsonak kontutan hartu gabe (haurrak, adineko pertsonak...)

SEXUALITATEA

- Ahozko jazarpena
- Herri mugimenduen jaiguneak sexualki erasotzeko erabiltzea
- Abusu sexualak, bortxaketak, sexu bidez transmititutako gaixotasunak kutsatzea
- Erasoak ezeztatzea eta erasotuak zalantzan jartzea.
- Erasoen kudeaketa eza edo gaizki kudeatzeagatik erasotuak ber-biktimizatzea.

ANTOLAKETA

- Paternalismoa, kideen lan eta iritzien (emakumeon*) ikusgarritasun eta errekonozimendu falta
- Emakume, bollera eta transentzako espazio ez-mistoen kritika eta ukapena
- Eremu ikusgarrietan (ekintzak, manifestazioak, asanbladen dinamizazioa...) gizonetzko cis-en presentzia sarritan nabarmentzea
- Akta hartzearen ardura eta asanbladen ordutegia, zaintza lanekin bateragarri ez izatea (jardunaldi hirukoitza: lana, etxea, militantzia).
- Estatusa: Espazio horizontal eta asanbleariotan gizonetzkoen botereaz nagusitzea.
- Ahotsa: hitz hartzea nagusiki gizonetzkoena izatea, emakumezko kideak moztea, mansplaining, emakumezko kide batek aurrez aipatutako ideia erreplikatzeko.
- Prentsa ohar eta komunikatu androzentrikoak idaztea.
- Sare sozialak logika eta jarrera matxistak erreproduzitzeko espazio bezala erabiltzea.

ERASOAK SALATZEAREN ONDORIOAK

- Moteltasuna, oldarkortasuna eta opakotasuna salaketa prozesuan
- Erasotuak edo erasoak publikoki salatzen dituztenak zalantzan jartzea, difamazioa eta desakreditazioa
- Erasoak, bertsioen arazo bat direla ulertzea
- Erasotuak bakartzea
- gaslighting: erasotuak nahastea informazio faltsuarekin, beraien burua zalantzan jar dezaten.

Iturria:
Nociones Comunes,
Vivas Nos Queremos
Ikastaroa

3.

KASUEN KUDEAKETARAKO OINARRIAK

Kasuak kudeatzeko eman beharreko urrats konkretuak azaldu baino lehen, garrantzitsua iruditzen zaigu esku-hartzearen ikuspegia edo filosofia zehaztea:

● Irekitasuna eta itxitasuna

Eraso matxisten kontrako protokoloak tresna irekiak dira, egoerak eta baldintzak anitzak direlako eta, beraz, errezeta itxi, zurrun eta bakarrek balio ez duelako. Kasuan kasu, aurreikusi gabeko egoerak kudeatu beharko ditugu. Alabaina, eraso baten aurrean jarraitu beharreko bidea zehazten du protokoloak. Kasu bat azaleratzen den momentuan eztabaida amaiezinetan sartzea ez da gomen-dagarria ez eta praktikoa ere. Ondorioz, protokoloak zehazki jarduteko argibideak emango ditu eta nora jo bideratzen lagunduko du. Hau da, erasoei aurre egiten laguntzeko printzipio, oinarri eta balio komun batzuk zehaztuko ditu.

● Konfidentzialtasuna eta informazioaren kudeaketa

Oso garrantzitsu da inplikaturako pertsonen konfidentzialtasuna gordetzea eta zurrumurruek ekiditea. Informazioa boterea da eta kontu handiz ibili behar gara esku artean dugun informazioarekin. Zurrumurruek oso arriskutsuak dira eta ez dute prozesuan laguntzen. Erasoa jasan duenari zein eraso egin duenari² egin dakiokete kalte. Gertatu daiteke, adibidez, erasotua izan den pertsona berbiktimizatzea edo berak erabaki ez duen gehiegizko esposizio publikoa eragitea. Edo gertatu daiteke baita ere, eraso jasan duenaren hitza zalantzan jarri eta bertsioen gudan katramilatzea, eraso jasan duena epaituz. Bestalde, joera handia dago eraso egin duena demonizatzeko, hots, munstro bilakatzeko. Horrek eraso egin duenarekiko erabaki gabeko “heriotza soziala” ekar dezake: boikota eta bazterketa soziala, alegia.

Hasieratik argitu behar da informazioa eta erabakiak zein markotan kudeatuko den eta garrantzitsua izango da marko horrek kide guztien konfiantza eta oniritzia izatea. Ondo pentsatu behar da ZEIN, NOLA eta NON landuko den informazioa eta horri babes erakustea. Arazoak eta deskonfiantzak sortzen dira, adibidez, eraso bat publiko egin eta kideek egituratik informazio jakotzen ez dutenean. Horrelakoetan, beste ezer baino lehen zein informazio nahi dugun eta zertarako behar dugun galdetuko diogu geure buruari, eta baita horrek prozesuan lagunduko duen edo ez. Bestalde, kasuaren bueltan sortu al diren zurrumurruei aurre egiteko baliabideak ere sortu ditzakegu. Gidaren amaieran, baliabideen atalean, afitxa baten eredua dugu esaterako.

(2) Erasoa egin vs erasotzaile izan: Erasotzaile hitza erabili ordez, eraso egin duen pertsona egokiagoa iruditzen zaigu, fokoa pertsonak egindako jokaeran jartzen duelako eta ez pertsona baten izaeran edo identitatean. Zentzu berdinean, eraso jasan duen pertsona erabiltzea hobesten dugu.

● Bertsio gudarik ez: eraso jasan duena babestea lehentasuna

Indarkeria matxistaren kontzeptualizazioan ikusi dugun bezala, inplikatuak ez daude maila berdinean. Hau da, egiturazkoa den botere harremanen baitan gertatzen dira elkarte edo kolektibo barneko eraso matxistak. Bi aldeak entzungo diren arren, ez da inor epaitu behar eta esku-hartzearen helburua ere ez da arrazoia nork duen erabakitzea. Taldearen zati batek erasotua izan den kidearen bizipenak zein sentipenak zalantzan jartzen baditu oso mingarria izan daiteke eraso jasan duenarentzat. Horrelako egoeraren bat pairatu dutenek diote, askotan min gehiago ematen duela jendearen jarrerak -hala nola, euren



hitza ez sinesteak eta zalantzan jartzeak- erasoak baino. Izan ere, komunitate politiko eta afektibo batez ari gara. Kontuan izan behar dugu, halaber, sinesgarritasun ezak bigarren indarkeria prozesu bat ere eragin dezakeela, esaterako, justizia aparatuekin gertatzen den moduan. Gauzak horrela, eraso jasan duen pertsona babestea eta laguntzea izango da lehentasuna. Zaila izaten da eraso bat salatzea, are zailagoa eraso egin duena pertsona ezaguna bada eta estatus soziala badu, eta momentu horretan inguruaren erantzun egokia eta babes sentimentalea gakoa da.

● Proporzionaltasuna

Eraso motak eta horiek ematen diren kontestuetan oso ezberdinak izan daitezke. Erasoren araberrako prozesuak eta neurriak hartuko dira. Horretarako, eraso mota, testuingurua eta eraso jasan duenaren egoera eta beharrak kontutan hartzea ezinbestekoa izango da eta hartutako neurriak elementu horiekiko proporzionalak izan behar dira.

● Justizia berrosatzailearen printzipioa

Erasoen kudeaketarako proposatzen ditugun prozesuak ikuspegi erreparatzaile eta eraldatzaileetan kokatu nahi ditugu. Hauek dira gure iritziz esku-hartzeak izan beharko lituzkeen helburu nagusiak:

1. Erasoren ondorioz sortu diren zauriak eta minak ez handitzea eta ahal den neurrian, osatzea.
2. Erasoa pairatu duen pertsonaren berrosatze prozesua babestea edo lanketa prozesu bat martxan jartzen laguntzea.
3. Erasoa ez errepikatzea, edo gutxienez erasoak ekiditeko talde dinamikak zaintzea.
4. Erasoa egin duenaren bergizarteratze feminista.

Erasoa egin duenak egindakoa eta eragindakoa mina onartzen duenean, posible da justizia punitiboaren zigor prozeduretatik at bestelako prozesuak abiaraztea. Adibidez, lanketa pertsonala, terapia edota trebakuntza feminista egitea proposatu dezakegu prozesu horren baitan. Tarte horretan, eraso jasan duenaren ongizatea eta koherentzia politikoa bermatzeko espazio edo funtzio batzuk betatuak izan ditzake eraso egin duenak. Konpromezuak bete ahal, betoak errebisatu egingo dira; azken helburua, bergizarteratze feminista eta elkarte edo kolektiboan normaltasunez aritzea delarik.

Printzipio horrek zalantzak sortzen ditu, pape-
rak dena eutsi arren erralitatea korapilatsuagoa delako. Horrelako prozesuetan murgiltzeak elkarte edo kolektiboaren energia eta baliabideak husten ditu, bereziki kasua kudeatzeko lantaldean daudenena. Halaber, ez dago helburuak beteko direnaren bermerik. Era berean, bergizarteratze feminista emateko baldintzak dauden jakitea eta, beraz, prozesuaren amaierara heldu garela konturatzea zaila izan daiteke. Esan gabe doa, noski, edozein momentutan erabaki daitekeela prozesua etetea eta bestelako neurri batzuk hartzea. Posible da baita ere, elkarte edo kolektibo batek protokoloa diseinatzerakoan kasu oso larrietan prozesurik ez abiatzeko erabakia hartzea eta eraso egin duenak egindakoa onartu arren, elkartetik kanporatua izango dela deliberatzea.

Ohikoan, kolektiboko gizonak izaten dira eraso egin duenaren kontra oldartzen direnak. Munstroaren mitoa elikatzen dute eraso egin duenarengandik desidentifikatu eta urruntzeko saiakeran; «bera txarra, gu onak» dikotomia sustatuz. Gizon guztiak dira sozializazio prozesu berdinen parte eta horrelako egoerek beraien jarrera eta konplizitateak islatu ditzakete. Bestalde, eraso egin duenarekin lanketa pertsonala eta maskulinitate ereduaren errebisio prozesua garatuko duten gizon feminista askorik ez dago, eta hori oztopo izan daiteke horrelako prozesuak martxan jartzekorakoan.

Erasoa jasan duenari dagokionean, justizia berrosatzailean oinarritutako prozesuan sartzeak ez du esan nahi amorrua edo gorrotoa sentitzeko eta ateratzeko eskubiderik ez duenik. Emozio guztiak ateratzea osatze bidearen parte

“

Ohikoan, kolektiboko gizonak izaten dira eraso egin duenaren kontra oldartzen direnak. Munstroaren mitoa elikatzen dute eraso egin duenarengandik desidentifikatu eta urruntzeko saiakeran; «bera txarra, gu onak» dikotomia sustatuz.

da. Elkarte edo kolektiboetan sarritan eraso egin duenaren prozesuan jartzen da arreta; eraso jasan duena, aldiz, bigarren mailan geratuz. Aitzitik, erasotuak ere prozesu bat egiteko baldintzak, tresnak edo espazioak dituela ziurtatu behar dugu. Bestalde, osatze eta erreparazio kolektiborako ekimenak eta erritualak asmatzea oraindik-orain erronka da. Antolakundearen zein espaziotan, zein formatan, noren ahotik... egingo da jasandako minaren aitortza politiko eta kolektiboa?


● Ardura kolektiboa da

Eraso bat ez da soilik bi pertsonen artean gertatzen den zerbait. Elkarte edo kolektiboko kide guztiok gara ematen diren botere harremanen konplize eta, beraz, guztiona da gertatzen diren erasoekiko arduradun. Horrelako gertaerek gainera, gutxiago ala gehiago, komunitate osoari eragiten diote. Ondorioz, lanketak egiterakoan 3 subjektu hartuko ditugu kontuan: erasoa egin duena, erasoa jasan duena eta kolektiboa/komunitatea.

Elkarte osoak dauka inplikatzeko ardura eta, askotan, berrosatzeko beharra. Horregatik, kasu bat azaleratzen denean kolektibo edo egiturako kide guziekin formazio edo osatze saioak egitea proposatzen dugu. Erreparazioaren bidean, elkarteak bestelako ekimenak ere pentsatu ditzake osatze kolektibo horri dimentsio eta aitortza politikoa emateko.

Kudeaketaz arduratuko den lantalde bat sortu arren, egiturak sostengatu beharreko prozesuak dira. Ezin da soilik pertsona zehatz batzuen edo elkarteko “feministen” ardura izan. Egiturak heldu behar dio protokoloari, momentuko kideak edozein direlarik, eta baita bertatik eratorri daitezkeen prozesuei ere. Lantalde horren zaintza bermatze aldera horri arreta jartzea garrantzitsua da.

Askotan kudeaketa lantaldearen osaketarekin zalantzak sortzen dira. Izan ere, guztiona bada ardura, gizonetakoek bertan parte hartzea



onartu daiteke. Alta, esperientziak erakutsi digu kontzientzia eta prestakuntza emozional zein feminista gutxiko pertsonen parte hartzea lantaldean oztopo izan daitekeela. Edonola ere, halako prozesuak aukera ere izan daitezke: nola gizonen dituzten gabeziez eta errealitate hauen gogortasun eta zailtasunez jabetzeko, hala profilak, kontzientzia mailak zein ardurak orekatzeko. Beraz, hasieran jarerra pasiboa-goia eduki arren, trebakuntzarako espazio izan daiteke lantaldea. Bertan parte hartuko duten gizonen elkartean erreferentzia edo boterea izatea ere estrategikoa da.

4.

PROZESUAREN URRATSAK

Orain arte gidaren eta gaiaren kokapen orokorra egin dugu. Kontzeptu batzuk argitu eta kasua kudeatzerakoan aproposak izan daitezkeen oinarri filosofikoak azaldu ditugu. Hemendik aurrera, atal tekniko edo operatiboan sartuko gara. Lehendabizi, kasu bat ekiditeko eta kasu bati aurre egiteko egin beharreko ibilbidea deskribatuko dugu. Horri esker, prozesu osoaren ikuspegi orokorra izango dugu. Ondoren, protokoloa egiteko elkarte bakoitzak landu beharreko puntuak edo ariketak azalduko ditugu. Dokumentuaren amaieran, eranskinen atalean, ariketa horiek egiteko fitxa lagungarriak topatuko ditugu.

4.1 Aldez aurretik

Protokoloa aktibatu aurretik kontutan hartu beharreko hainbat kontu:

Prebentzioa

Erasoak eta indarkeria ez emateko estrategiarik onena, urte osoan zehar eta modu etengabearen formazioak, eztabaidak eta lanketa ezberdinak egitea da: eskola feminista, emakumeak ahalduztzeko saioak, gizonekin maskulinitateak eta desboteretzea, elkarleen barruko botere harremanak eta demokratizaziorako tresnak... Hauek urteko plangintza edo berdintasun planean jaso daitezke eta egiten direla ziurtatu beharko da.

Protokoloaren sozializazioaren beharra

Protokolo bat edukitzea eta hau existitzen dela ezagutaraztea ere prebentzio neurri bat izan daiteke, gizon batzuk tentuz ibiltzeko eta emakumeak seguruago eta libreago sentitzeko aukera ematen du. Izan ere, protokoloa eraso egoera bat salatu edo aurre egiterakoan elkarleen babesa ziurtatzeko tresna da.

Beraz, bereziki elkarte handietan edo kide asko dituen antolakundeetan, kide guztiek jakin behar dute protokolo bat existitzen dela eta nora jo behar duten gertatutakoaren berri emateko. Kide berriei harrera egiten zaienean ere azaldu beharreko puntua izango da. Arduradun baten izena edo kontaktu pertsonala eman ordez, kontaktu orokor bat (email, telefono zenbaki, etab.) sortzea komeni da. Erasok biderratzearaz arduratuko den lantaldeak (ikus 5.5. puntua) kudeatuko du email anonimo hori; modu horretan, lantaldeko kideak aldatu arren kontaktua mantenduko da eta urteen poderioz erreferentialtasuna hartuko du.

● 4.2 Protokoloaren aktibazioa

Kasu baten berri dugunean egin beharreko lehenengo gauza egoeraren azterketa da:

Erasoaren inguruan iritsi zaigun informazioa aztertu

Noiz gertatu da? Non, zein eremutan? Nolakoa izan da eraso? Informazio iturrira gerturatu eta informazioa osatu. Erasoa bizi duenak eta eraso egin duenak zein leku dute kolektiboan? non egiten dute topo?

Beharrezkoa ikusten bada, *urgentziazko neurriak* hartu daitezke hasierako momentuan, prozesuari forma emateko informazio gehiagorik lortu eta pauso ezberdinak ematen diren bitartean.

Erasoaren nolakotasuna definitzeko 2 irizpide nagusi baliatuko ditugu

- **Erasoen sailkapena** (ikusi 5.2. puntua)
- **Testuinguruari lotutako faktoreak:**

- **Inpaktua:** gertaerak erasotua izan den pertsonarengan edo kolektiboan izandako eragina.
- **Maiztasuna:** eraso behin gertatu den edo errepikatzen den jarrera bada.
- **Intentsitatea:** erasoaren larritasun maila.
- **Kokapen soziala:** subjektu bakoitzaren estatus soziala, kulturala edo politikoa eta kolektibo barruko boterea/posizioa.
- **Denbora:** aspaldiko kontua den, oraingoa, behin gertatu den edo denboran zehar errepikatu den jokaera bada.
- **Ikusgarritasuna:** intimitatean gertatu eta gertukoaren artean geratu den edo espazio publiko batean gertatu eta esfera publikora salto egin duen informazioak.
- **Arriskua:** eraso jasan duenak berriro erasotua izateko dauden aukerak eta bere osasun fisiko edo psikologikoa okertzeko dauden aukerak.
- **Sortutako ondorioak** edota gertaera horrek eragin dituen bestelako albo-ondorioak.
- **Botere posizioak:** Generoa, adina, antzintasuna, arraza edo jatorria, aniztasun funtzionala, klase soziala eta balidabide ekonomikoak...

Erasoa jasan duenarengana gerturatzea

Lehentasuna izango dute erasoak jasan duen pertsonaren behar eta denborek. Informazioa eman diguna ez bada erasoak jasan duena, berarengana hurbiltzeko edo bere ingurune hurbilera gerturatzeko modu egokiena bilatu beharko dugu. Gure babesa adierazi eta protokoloaren berri emango diogu. Zer nahi eta behar duen galdetuko diogu eta baita hori pentsatzeko denbora eskaini ere. Garrantzitsua da bere bizipenak eta gertatutakoaren kontakizuna zalantzan ez jartzea, ez epaitzea eta jarrera paternalistak ekiditea. Kudeatzeko egoera zailagoa izango da erasoan pertsona bat baino gehiago baldin badaude inplikatura, hots, erasotu ugari badaude. Halakoetan, askotariko behar eta estrategien artean oreka bilatu beharko da.

Erasoa egin duenarekin hitz egin

Iritsitako gertaeraren berri emango diogu eta elkarteak protokolo bat eta lantalde bat daukala horrelako egoerak kudeatzeko esango diogu, neurri eta proposamen zehatz batzuekin. Baloratu beharko da erasoak egin duela onartzen duen eta inplikatzeko jarrera positiboa erakusten duen edo ez. Beraz, bi norabideetan bereiziko da erasoak egin duen pertsonarekiko elkartearen jokabidea eta esku-hartzea:

Ez badu erasoak egin duela onartzen, aukera egongo da bestelako neurri edo ekintza batzuk egiteko, hala nola, salaketa publikoa edota kaleratze zuzena.

Erasoak egin izana onartzen badu, prozesu bat proposatuko diogu bergizarteratze feministago bati begira.

● 4.3 Kudeaketaren urratsak eta neurriak

Erasoa egin izana onartzen badu, lanketa **hiru dimentsiotan** egingo dugu: erasoa jasan duenarekin, erasoa egin duenarekin eta taldearekin. Dimentsio ezberdin hauetan hartzen diren ekinbide eta erabakien inguruan zer eta nola jakinarazten dugun tentuz aztertu beharko dugu.

Erasotua izan denarekin

Zaintza, babesa eta laguntza eskaini. Bere ongizatea izango da lehentasuna. Ardura guztia bere gain jarri gabe, balizko berrosatzeari begirako prozesua berarekin batera pentsatu. Izan daiteke hartu emana berarekin zuzenean egin ordez, bere gertuko lagun edo babes sareko kideren bat izatea gure lotura. Dauzkan beharrak identifikatu, entzun, isiltasunak errespetatu, bere inguruarekin batera zaintzarako neurriak hartu eta bere erabakiak errespetatu.

Elkarte edo kolektiboaren barruko bizitza normaltasunez eta lasaitasunez jarraitzeko aukera bermatu behar dugu. Betiko espazioetara joan eta betiko markoetan parte hartzeko aukera eduki dezala, askatasunez eta baldintzatzaile-rik gabe. Kasu batzuetan, elkarteak asetu ezin dituen beharrak izan ditzake erasoa pairatu duenak eta kanpo baliabide profesionalen bidez eman diezaiokegu erantzuna, horretarako kontaktu eta tresnak eskainiz: terapeuta feministak, abokatuak, formatzaileak...

Erasoa egin duenarekin

Behin egindakoa onartuta, neurri eta lanketa batzuk proposatuko zaizkio eraso motaren arabera. Neurri horiek aurrez zehaztuta izango ditugu. Garrantzitsua da **berarekin HITZAR-MEN batera iristea**: lantaldeak prozesu baten proposamena egingo dio, baina prozesua egin bitartean beto izaerako neurri ezberdinak hartuko ditugu (lanaldiari, elkartearen parte hartzeari, publikotasunari, espazioen kudeaketari edo besteri lotuta). Erasoa egin duenak, proposatutakoa onartu eta bertan jasotzen dena betetzeko ardura adierazi behar luke. Ahal den heinean, denborak zehaztuko ditugu eta prozesuaren jarraipena nola egingo den diseinatuko dugu. Izan daiteke hartu emana berarekin zuzenean izan ordez bere gertuko lagun edo babes sareko kideren baten bitartez egitea. Erasoa jasan duenarekin adostutako hitzarmena izango da, noski, eta berak ere onartu eta sinatu beharko du.

Erasoa egin duenak egin beharreko prozesu edo lanketari dagokionean, eraso motaren eta bere jarreraren arabera erabakiko dira beharrak, zer eskainiko zaion edo zer bilatu beharko duen: adibidez, maskulinitateak lantzen dituen

aritu/adituren bat edo gizon talde batekin harremanetan jarri daiteke, askotariko formazio feministak, terapia indibiduala, instituzioetatik egon daitezkeen baliabideak, etab. Garrantzitsua da baliatuko diren tresnek oinarri feminista izatea. Zentzu honetan, bere terapeutaarekin harremana izatea aukera bat izan daiteke. Zorituraz, gizonekin lanketak egiteko baliabideak escasak dira oraindik.

Erasoa egin duenak prozesuan zehar hartutako konpromezuak apurtzen baditu, hasierako hitzarmen edo proposamena ekarriko diogu gogora berak hartu zituen ardurak eta adostutako erabakietan berresteko. Ez badu jarrera aldatzen, prozesua eta hitzarmena apurtutzat eman daiteke eta bestelako neurri nahiz erabakiak hartzeko aukera egongo da. Jarraipenean zehar edo inflexio puntuetan aurrera pausoak ikusten baditugu eta prozesua bide onetik badoa, hasierako hitzarmen hori moldatzen joan gaitezke, espazioak eta aukerak irekiz eta adostasun berriak erabakiz (beti ere alde guztiak jakinaren gainean egonez).

Komunitatea

Gertaerak elkartean izandako inpaktuaren arabera behar kolektibo batzuk egon daitezke prozesuaren baitan. Beraz, **berrosatze kolektiboaren** kudeaketan ere pentsatu behar du lantaldeak, gertakariak sorturiko min eta hunkipena arindu edo sendatzeko espazio seguruak eta baliabideak eskainiz. Bestalde, elkarteko kide guztiakin partekatzen den informazioa zein den eta noiz egingo den erabaki behar da.

Maila batean elkarrekin osoak prozesuaren berri izan behar du eta babes, zilegitasuna eta aitortza eman behar dio lantaldeari. Horrez gain, bakoitzak daukagun arduraz hausnartu behar dugu: nola elikatu dugun pertsona batzuk botere gehiago eta beste batzuk gutxiago edukitzea, konplizitateak, erasoak jaso zenean ala ostean izan ditugun (edo ez ditugun) jarreraren inguruan...

4.4 Jarraipena

Puntu honi garrantzia eman behar zaio, zailena izan ohi delako. Eraso baten berri izaterakoan mundu guztia asaldatzen da, zurrumurruak zabaltzen dira, guztiak nahi dute iritzia eman edo zerbait egin, amorrua bideratu edo beste, baina olatua berehala jaisten da eta hortik denbora gutxira gertatutakoa ahaztu edo eguneroko beharrek estalita gelditzen da. Prozesua aktibo mantentzen duten energia, baliabide eta denbora agortzen joaten dira.

Zentzu horretan, garrantzitsua da kasuaren kudeaketaz arduratzen diren **lantaldeko kideak zaintzea**. Energia eta denbora andana eskatzen duten prozesuak izaten dira, inplikatuengan arrasto emozional eta sozialak uzten dituenak: izan prozesuak eskatzen dituen lanengatik (testigantzak entzun, prozesua kudeatu, etab.) edo izan kanpo presio, epai edo iritziengatik.

Nola harremanduko gara erasoak bizi izan duenarekin?

Zuzenean berarekin harremanduko garen edo inguruko lagun bitartez, nolako maiztasunarekin, zein informazio ezagutzea nahi duen eta zein ez erabaki... Erasoak jasan duenarekin harremana mantentzea garrantzitsua da; askotan erasoak egin duenaren jarraipenean jartzen dugu fokua eta denborarekin erasoak egin duenaren zaintza ahazten zaigu. Kasu bakoitzak bere prozedura propioa izango du eta beraz tempusak eta moduak ezberdinak izango dira, baina gutxienez hilean behin berarekin hitz egiten saiatuko gara zuzenean ez bada telefonoz.

Nola harremanduko gara erasoak egin duenarekin?

Diseinatu jarraipenaren maiztasuna, berarekin zuzenean gu harremanduko garen edo gertuko norbaiten bitartez egingo dugun, terapia edo bidelaguntza prozesua egiten ari denarekin harreman zuzena edukiko dugun... Kasu bakoitzak bere prozedura propioa izango du eta beraz tempusak eta moduak ezberdinak izango dira, baina gutxienez hilean behin berarekin hitz egiten saiatuko gara zuzenean ez bada telefonoz.

Prozesua ondo badoa eta hartutako konpromisuak betetzen ari direla baloratzen badugu, beto izaerako zein bestelako neurriak malgutzen joango gara. Gogoratu azken helburua bergizarteratze feminista dela, hau da, kolektibora normaltasunez itzuli ahal izatea. Momentuaren batean erasoak egin duenak hitzartutakoa betetzen ez badu edo neurriren bat errespetatzen ez badu, berarekin hitz egingo dugu eta hitzarmena bergogoratuko diogu. Lantaldearen helburua erasoak gertatuak diren ardurak bere gain hartzea izango da, ez agintzea: bai bere ekinbideek izan dituzten ondorioei dagokionean, eta baita hori sendatu eta halakorik berriro ez gertatzeko ardurak.

Gehienetan, prozesu luze eta gorabeheratsuak izan ohi dira. Ez dira hemen deskribatzen dugun bezain koherenteak eta linealak izatean eta askotan etsipena da nagusi. Beraz, oso garrantzitsua da urrats txiki bakoita ospatzea.

● 4.5 Itxiera eta ebaluazioa

Garrantzitsua da momenturen batean eta adosten denan prozesuari itxiera ematea, nahiz eta beti ez diren guri gustatuko litzaigukeen bezala aterako gauzak edo aurrez irudikatzen genuen helburuetara iritsiko.


Ebaluazioa jarraitua izan behar da, hots, prozesuan zehar etengabe egingo da eta, hain zuzen, horrek erakutsiko digu prozesua nondik bideratu behar dugun. Bidean egingo diren balorazioez gain, ezinbestekoa izango da prozesuaren amaieran ebaluazio orokor bat egitea, prozesuaren hasieratik amaiera arte emandako urrats guztiak eta gertakari guztiak barne hartuko dituen. Azken ebaluazio hori egiterakoan, kontutan izan minak berpiztu daitezkeela, beraz, zaindu momentua eta baldintzak.

Ebaluazioarekin batera garrantzitsua da **prozesuaren sistematizazioa egitea**, elkartean ematen diren erasoak jasotzea eta horietan oinarrituta, protokoloa berritzen, osatzen eta egokitzen joatea geroz eta prozesu eraginkorragoak kudeatzeko. Balorazioa egiterakoan interesgarria izango da zertan asmatu den eta beste modu batera egingo genituzkeenak zehaztea. Modu horretan, kasu bakoitzetik irakaspen handiak aterako ditugu. Bada irakaspen horiek jasotzea eta antzerako kasuak kudeatuko dituzten hurrengoei informazio hori iristea, berebizikoa izango da erasoen kudeaketan kolektiboki trebatzen eta hobetzen joateko.

Balorazioetan garrantzitsua da ondo egindako kontuei pisua ematea, amaierara iritsi diren prozesuak garaipen txiki bezala ospatzea eta alde guztietatik egin den lan eta inplikazioaren aitorpena egitea. Ohikoa da gaizki egindakoe-kin edo zailtasunekin gelditzea, baina gogoan izan behar dugu, orokorrean, guztiontzako zailak eta berriak direla horrelako prozesuak.

“

Garrantzitsua da kasuaren kudeaketaz arduratzen diren lantaldeko kideak zaintzea. Energia eta denbora andana eskatzen duten prozesuak izaten dira, inplikatuengan arrasto emozional eta sozialak uzten dituen: izan prozesuak eskatzen dituen lanengatik (testigantzak entzun, prozesua kudeatu, etab.) edo izan kanpo presio, epai edo iritziengatik.



5.

PROTOKOLOA KOLEKTIBOKI DEFINITZEKO ARIKETAK

Hitzaurrean esan dugun bezala, protokolo bat edukitzea baino interesgarriagoa da protokoloa osatzeko egiten den bidea. Barne mailako erasoak kudeatzeko protokolo baten beharra aitzakia ona izan daiteke indarkeriaren gaineko hausnarketa, formazio eta lanketa kolektiboa egiteko. Garrantzitsua da, beraz, protokoloaren osaketan ahalik eta kide gehienen inplikazioa lortzea.

Emaginetik protokoloak osatzeko prozesu parte hartzaile ezberdinak dinamizatu ditugu eta dokumentu honetan bildu ditugu saio horietan landutako atalak eta erabilitako tresnak. Ondorengo lerroetan, taldean lantzeko dinamika ezberdinak azalduko ditugu.

5.1 Formazioa

Lehenik eta behin, ezinbestekoa ikusten dugu indarkeria matxisten inguruko formazio orokor bat jasotzea. Hauek dira landu daitezkeen puntu batzuk:

- Indarkeriaren kontzeptu ezberdinen definizioak azaldu: familiarteko indarkeria, genero indarkeria, indarkeria sexista, indarkeria matxista... Protokoloan zein kontzeptu erabiliko den erabaki daiteke saio honetan.
- Indarkeria motak azaldu eta adibideak jarri: indarkeria zuzena, egiturakoa eta sinbolikoa edo kulturala.
- Indarkeriaren jatorria eta zergatiak azaldu: genero sozializazio prozesuak.
- Indarkeriaren inguruko mitoak landu eta deseraiki.
- Elkarte eta mugimendu sozialetan ematen diren erasoen eta botere harremanen inguruan hitz egin.

● 5.2. Erasoen sailkapena

Erasoen sailkapena egiteko bi ariketa planteatzen ditugu:

1) Erasoak identifikatu: postitak banatuko dizkiegu parte hartzaileei eta kide bakoitzak eraso ezberdinak idatziko ditu (eraso, diskriminazio egoera, gutxiespenak,...), postit bakoitzean eraso bat. Izan daitezke elkartean eman diren egoerak edo beste batzuk, eta joan daitezke bortxaketa bezalako eraso larrietatik, bileretan egoten diren gehiegikeria eta jarrera matxistetaraino. Adibidez: ahotsa altxatzea edo iritzi bat kontutan ez hartzea. Garrantzitsua da deskribatzen den jokaera ahalik eta konketuena izatea.


Ondoren, iceberg baten irudia inprimatuko dugu tamaina handian eta kide bakoitzak postitean idatzitakoa azalduko du banaka eta icebergean puntu konketu batean itsasiko du, deskribatutako egoeraren larritasuna eta ikusgarritasunaren arabera.

2) Behin icebergean eraso mota asko ditugunean, horiek **sailkatzera edo multzokatzera** pasako gara. Helburua, egoera guzti horiek 3, 4 edo gehienez 5 multzotan sailkatzea da, larritasun gutxienekoetatik handienekoetara. Honetarako, **ERANSKINA I** fitxa erabili daiteke.

● 5.3. Aplikazio-eremua

Kolektibo eta talde txiki eta itxi bati buruz ari garenean, nahiko argia izaten da nori eragiten dion protokoloak eta zeintzuk diren eragin eremuak. Aldiz, gertatu daiteke kolektibo edo elkartearen mugak zeintzuk diren edo non bukatzen den argi ez egotea, askotan antolakunde baten atzean mugimendu oso bat dagoelako. Adibidez, gertatu daiteke inplikazio maila ezberdinak dituen elkarte edo antolakunde zabal batez aritzea (langileak, militanteak eta bazkideak izatea adibidez) edota kanpora begirako egitasmo ezberdinak antolatzea eta horretarako langile puntual edo borondatezkoekin kontaktzea edo parte hartzaile asko gerturatzea.

Pentsatu beharko dugu protokoloak soilik barne mailako egiturari eragingo dion edo kanpora begira antolatzen ditugun egitasmoe-tan gertatzen diren egoerak ere barnebilduko



dituen (adibidez, jaialdiak, ikastaroak, lehiaketak, jardunaldiak, kanpaldiak, etab.)

Puntu honetan, beraz, hau da definitzen saiatuko garena: nori edo zein subjektuei eragingo dion protokoloak eta elkarteren zein eremu edo geruzetan aplikatuko den. Horretarako lagungarria izan daiteke **ERANSKINA II** fitxa:


SUBJEKTUAK: zein subjektu barnebilduko ditu protokolo honek? Hau da, **NORTZUK** inplikatuko ditu protokolo honek? zein subjektuekin esku-hartu beharko da zerbait gertatuz gero? Zenbat pertsona edo profil ezberdin ditzakegu gure elkartearen eta gure elkarreak antolatzen dituen egitasmoetan?

EREMUAK: NON eman daitezke erasoak? Nola sailkatuko genituzke elkarrearekin zerikusia duten eremu, marko edo esparru horiek? Nola definituko genituzke? Zein egoera edo eszenatoki zehatz barnebilduko lituzkete?

Erabaki dezakegu protokoloa maila batera arte soilik aplikatzea eta hortik harago gertatzen diren kasuetan **ERDIBIDEKO ESKU-HARTZEAK** egitea. Kasu horietan ez da jarraipen bat eskatzen duten prozesu izaerako esku-hartze sekuentzia bat planteatuko (agian egiturak ezin duelako hainbeste energia eta baliabide eskaini). Alta, zerbait egitea planteatu daiteke: informazioa partekatuz, kanpo eragileengan delegatuz, inplikaturakoekin hitz eginez, kontaktuak pasaz, etab. Noizean behingo jaialdiak antolatzen dituen eragile bat izanez gero, adibidez, egoera horietarako jarduketa azkarreko protokolo espezifiko bat izatea erabaki daiteke, herriko festetan izaten diren protokoloen antzera.

● 5.4. Neurriak eta proposamenak

Atal hau izan daiteke osatzeko zailena, izan ere, ez dago erreferentzia askorik. Puntu honetan, eraso bat gertatu ondoren inplikaturako subjektu ezberdinei zuzenduriko (erasoa jasan duenari, eraso egin duenari eta komunitateari) zein neurri hartuko dituen zehazten du elkarteak. Arestian aipatu bezala, modu bateko edo besteko neurriak hautatzeko, erasoen sailkapena hartuko dugu kontuan (1. *Eranskinean* dagoen izozmendia) eta baita testuinguruari lotutako faktoreak ere (inpaktua, maiztasuna, kokapen soziala, ikusgarritasuna, arriskua, etab.)



Erasoa jasan duenarekin

- Nola jokatu dugu berarekin?
- Zein babes neurri jarriko ditugu? Zer egin dezakegu bera lanera lasai etortzeko, bere parte hartzea mantentzeko eta bera aske eta seguru sentitzeko?
- Zein bitarteko eskaini ditzake elkarteak edo antolakundeak bere beharrak asetzeko edo bere osatzeko prozesuan laguntzeko? Nola lagundu dezakegu erreparazioan?

Eraso egin duenarekin

- Nola jokatu dugu berarekin?
- Zer neurri hartuko dira berarekiko? (Betetzen dituen funtzioei dagokionean, parte hartzen duen espazioei dagokionean, erreferente politiko edo kulturala bada esparru publikoan edo sare sozialen aktibitateari dagokionean, soldata, etab.)
- Zein lanketa mota egitea eskatuko zaio?

Komunitatearekin:

Atal hau betetzeko **ERANSKINA III** fitxa erabili daiteke. Bertan 3 prozedura posible daude, baina 4 edo 5 ere zehaztu daitezke nahi izatekotan. Hona hemen neurriak zehazteko eta taula betetzeko galdera lagungarriak:

- Nola jokatu dugu?
- Zer mugitu da eta zer lantzeko beharra dago barne mailan? Nola, nortzuk edo norekin landu dezakegu hori?
- Nola lagundu dezakegu egondako minaren aitortzan eta erreparazioan?

● 5.5. Nork kudeatuko ditu kasuak

Kolektiboa oso txikia izan ezean, normalean kasuak kudeatzeko talde bat sortzea da eraginkorrena. Pentsatu behar dena da nork osatuko duen lantaldea. Izan daiteke kasuaren arabera hautatzea pertsona egokienak edo elkarteko funtzioen arabera aurrez zehaztuta izatea nork osatuko duen lantaldea. Garrantzitsua da irizpide batzuk kontutan hartzea:

- Ez da komeni erasotuak modu zuzenean lantaldean parte hartzea, erabakiak hartzerakoan bere iritzia eta beharrak kontutan hartuko diren arren.
- Inplikaturakoekin harreman pertsonal estua duten pertsonen parte hartzea ere saihestuko da.
- Garrantzitsua da kontzientzia feminista eta kasuak kudeatzeko gaitasunen duten pertsonak egotea, beti ere, kudeaketa guztia esperientzia gehien duten pertsonengan delegatu gabe.
- Komeni da elkartearen barruan botere edo estatusa duen pertsonaren bat egotea, lantaldeak aitortza gehiago edukitzeko.

Atal hau osatzeko ondoko galderak lagungarriak suertatu daitezke:

- Kudeaketa lantalde iraunkorra? Kasuan-kasu sortua? Aurretik egituran dagoen markoren bat?
- Taldearen osaera eta profilak: zenbat kide? Nortzuk? funtzioaren arabera? Aurre ezagutzak?
- Ardura epealdiak: Txandakakoa? Errotaziorako irizpiderik?
- Informazioa eta kontrastea zein marko(t)an partekatuko da? Zein maiztasunarekin?

ERANSKINA IV fitxa erabili daiteke galdera hauek erantzuteko talde txikitan.

BIBLIOGRAFIA ETA BALIABIDEAK

- Joxemi Zumalabe (2018). *Eraso matxisten aurkako protokoloa*. https://biltokia.joxemizumalabe.eus/media/material/activities/Erasomatxistenprotokoloa_JMZ_behinbetikoa.pdf
- Bilgune Feminista (2018). *Mugimendu soialetan gertatzen diren eraso sexistak. Ibilbidea, kokapena, kudeaktarrako oinarriak eta erronkak*. <https://www.bilgunefeminista.eus/files/lines/2022/ec08b39d9c201f87179e8490adc28f3fmsgdes-txostenapdf.pdf>
- Emagin (2020). *Uste ustelak. Zurrumurru matxisten gida*. https://www.emagin.eus/wp-content/uploads/2022/01/USTE_USTELAK.pdf
- Tania Martinez Portugal (2016). *Transformando imaginarios sobre violencia sexista en el País Vasco. Narrativas de mujeres activistas*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/beca.2016.transformando_imaginarios_violencia_sexista_pv.pdf
- Creative Interventions (2009) toolkit (caja de herramientas). *Una guía práctica para terminar con la violencia interpersonal*. www.creative-interventions.org
- Uxue Alberdi (2019). *Kontrako eztarritik*. Susa- Lisipe saila.
- ESK (2018). *Jazarpen sexual eta sexuarengatiko jazapenaren aurkako gida ESKan*.
- Bilboko konpartsak (2015). *Konpartsentzako protokoloa*.
- Gora Iruñea (2017). *Jaietan eraso sexistei aurre egiteko protokoloa lantzeko dossierra*.
- Euskal Herriko Emakumeen mundu martxa (2017). *Erailketa sexistei aurre egiteko protokoloa*. <https://www.emakumeenmundumartxa.eus/protokoloa/#>
- Bilgune Feminista eta Emagin (2016). *Bilgune feministako autodefentsa liburuxka*. <https://www.emagin.eus/wp-content/uploads/2018/01/autodefentsa-liburuxka.pdf>
- Joxemi Zumalabe (2014). *Dabilen Harriari Goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*. <http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf>
- Fundación los comunes (2017). *Violencias Machistas en los movimientos sociales*. <https://labur.eus/2ON6b>
- Hainbat egile (data ezezaguna). *Tijeras para todas, partes de mi que me asustan. Textos sobre violencia machista en los movimientos sociales*.
- Hartas y Combativas bloga. <https://hartasblog.wordpress.com/>
- The Empty Cages Collective. <http://www.prisonabolition.org/why-abolition/resources/>
- Salvage project. <https://projectsalvage.wordpress.com/resources/>



7.

Eranskinak



Erasoak identifikatu eta sailkatzea beharrezkoa da ondorengo neurriak pentsatzeko. **Izoz-mendian** duten posizioaren arabera eta bestelako baldintzatzaileak kontutan izanik, erasoen **larritasunaren araberrako sailkapen bat** egitea proposatzen dizuegu. Jokaera zehatzak idatzi dagozkien tokian.

“Larritasun handiagoko” erasoak

“Larritasun txikiagoko” erasoak

IKUSGARRIA

IKUSEZINA

SUBJEKTUAK: zein subjektu barnebilduko dituzte protokolo honek? Hau da, NORTZUK egongo dira inplikatuak protokolo honetan edo zein subjektuekin esku-hartu beharko da zerbait gertatuz gero? **Zenbat pertsona edo profil ezberdinak dituzte elkarteko egituraren edo dauden egitasmo eberdinetan?**

ERASOA EGIN DUENA							
ERASOA JASAN DUENA							

EREMUAK: NON eman daitezke erasoak? Nola sailkatuko zenituzke eremu edo esparru horiek? Eta nola definitu edo zein egoera edo eszenatoki zehatz barnebilduko lituzkete?

	Eraso jasan duenarekin	Erasoa egin duenarekin	Komunitatean
1. PROZEDURA (Neurri arinenak)			
2. PROZEDURA			
3. PROZEDURA (Neurri gogorrenak)			

Kudeaketa markoa: Kudeaketa lantalde iraunkorra? Kasu-kasu sortua? Aurretik egituran dagoen markoren bat?	
Taldearen osaera eta profilak: zenbat kide? Nortzuk? funtzioaren arabera? Aurre ezagutzak?	
Ardura epealdiak: Txandakakoa? Errotaziorako irizpiderik?	
Informazioa eta kontrastea zein marko(t)an partekatuko da? Zein maiztasunarekin?	
Bestelako ekarpenak edota ondorioak	



emagin
**Formazioa eta
ikerketa
feminista**

www.emagin.eus

943 59 09 02

emagin@emagin.eus